



### **Antonia Ferrer Sapena**

Universitat Politècnica de València Unibertsitateko katedraduna da eta unibertsitate horretako Datu Irekien eta Gardentasunaren Behatokiaren zuzendaria

1999. urteaz geroztik jardun du Valentziako Unibertsitate Politeknikoan irakasle, eta Bibliotekonomia eta Dokumentazioa titulazioen ikasgai-arduraduna izan da (bigarren zikloa), Argazkilaritzako Doktoretzan, doktoretzako Zeharkako Ikasgaietan, CALSI masterrean (Informazio Gizartearen Edukiak eta Lege Alderdiak) eta MUGI Masterraren zuzendaria (Unibertsitate Masterra Informazioaren Kudeaketan).

Florida Universitariako Ikaskuntza Baliabide Zentroaren zuzendaria izan da 1993-2015 urteetan, eta, hala, erakunde horretako Ikerketa eta Zaintza Teknologikoa koordinatu du.

Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Madphy ikerketa-taldearen zuzendaria da, eta baita Datu Irekien eta Gardentasunaren Katedraren eta Behatokiaren zuzendaria ere 2016. urteaz geroztik. Gaur egungo ikerketa-ildo nagusia dokumentazio zientifikorako eta ikerketa-datu irekietarako sarbide irekia da.

I+G alorreko 60 proiektutan baino gehiagotan parte hartu, eta Ikertzaile Nagusia izan da horietako 26tan. I+G+b alorreko 20 kontratu, hitzarmen edo proiektu ez-lehiakorretan baino gehiagotan parte hartu du Administrazioekin edo erakunde publiko edo pribatuekin.

90 artikulua baino gehiago argitaratu ditu garrantzizko aldizkarietan eta 60 kongresu eta Wokshopetan baino gehiagotan parte hartu du.

Thinkepi taldeko kidea da, eta E-LIS-eko (eprints.rclis.org) editore taldeko kidea. La Cibaren aholkularia da (Espai de recursos per a dones, innovació i economía feminista). Iruzurraren kontrako Valentziar Agentziako (AVA) partaidetza-taldeko kidea da, Tactical Whistleblowers Elkartearen lehendakariordea eta Open Future Lab Elkartearen idazkaria.

### **Museoen Ondare-funtsak Datu Irekien Aroan**

Museoen testuinguruan datu irekiek duten garrantzia aztertzen da aurkezpenean, digitalizazioak eta bildumak irekitzeak ondare kulturala nola aberastu dezaketen eta parte-hartze publiko

handiagoa nola bultza dezaketen aztertuz. Datu kultural irekien, metadatuen eta obren erreproduzio digitalen kontzeptuak lantzen dira, eta orobat aztertzen da elementu berri horiek nola erabil daitezkeen ikasteko, ikertzeko eta eduki berriak sortzeko. Hainbat proiektu landuko dira, hala nola openGLAM ekimena, galerien, liburutegien, artxiboen eta museoen ondare digitalerako sarbide librea sustatzen duena; ahalegin horien funtsezko adibide gisa aipatzen da. Internation GLAM Las Community-ren zenbait alderdi ere landuko dira.

Datuak irekitzeko erronkak eta oztopoak azpimarratuko ditugu, bai eta eskaintzen dituzten onura batzuk ere, hala nola ikusgarritasuna handitzea eta erakundeen arteko lankidetzak.

Azalpenarekin batera, sarbide irekiaren bidetik egin duten museoek adibideak aurkeztuko ditugu, hala nola Rijksmuseum edo Historia Naturalaren Museoa; horien bitartez erakusten da nola erraz dezaketen jardun horiek datuen eta metadatuen berrerabilera hainbat helburutarako, hasi hezkuntzatik eta turismoaren eta modaren esparruetako berrikuntzaraino.